

Nafarroako autonomia eredutzat jo du Herrero de Miñonek

Nafarroaren nortasunaren inguruko liburua idatzi du Allik

Asier Azpilikueta / **Iruñea**

Nafarroa, berezko nortasuna duen komunitate politikoa izenburuko liburua aurkeztu zuen atzo CDNko buru Juan Cruz Allik. Aurkezpenean Miguel Herrero de Miñon analista politiko espainiarra izan zuen lagun. Nafarroa, foru erkidego gisa, Espainiaren inbidia dela azpimarratu zuten liburuaren aurkezpenean.

NAFARROAREN berezko nortasuna azpimarratzen du CDN alderdi nabarristako buru Juan Cruz Alliren hainbat testu eta idatzi biltzen dituen liburuak. Miguel Herrero de Miñoni, Alliren lagun eta Espainiako Konstituzioaren zazpi aietako bati, egokitu zitzaion Alliren liburua aurkeztea. Juan Cruz Allik, berriz, bere liburuaren aurkezlea aurkeztean, esan zuen «Espainia osatzen duten errealitate plurinazionalen eskubide historikoak elkar-gune gisa gehien landu dituen pertsona» dela. Alliren aburuz, 1978. urteko Konstituzioak «Espainia askotarikoa eta ezberdina» biltzen du eta «hori ulertzeko gaitasuna» soilik falta da.

Miguel Herrero de Miñonek gauza bakarra azpimarratu nahi izan zuen liburutik: Allik plazaratzen dituen aukerak, Nafarroak —Konstituzioaren barnean— beste komunitate politikoeekin izan ditzakeen elkarkidetza moten ingurukoak. Miñonen uste-tan, Juan Cruz Allik azpimarratu du Nafarroaren balioa Espainiako paradigma bezala. «Ez da beste erkidego autonomo bat, foru erkidegoa baizik», erran zuen. «Berezko nortasun ezaugarri hori konstituzioaren aurrekoa da. Nafarroa Espainiak inbidiatzen duen administrazioa da», adierazi zuen Herrero de Miñonek.

Nafarroak nafarragoa izan behar du, Miñonek atzo azal dutakoaren arabera, Espainiaren paradigma izaten jarraitzeko. «Ez du sukurtsalista izan behar, bere etorkizunak ez du hirugarrenen eskuetan egon behar», gaineratu zuen analista politiko espainiarrak.

Alliren liburuaren aurkezpenera Nafarroako hainbat politikari gerturatu zen:

CDNko Burguete, PSNko Juan Jose Lizarbe, Lola Egu-ren eta Carlos Cristobal, IUko

Felix Taberna, Elkarriko Bittor Aierdi eta UGTko Juan Antonio Cabrero.



Miguel Herrero de Miñon eta Juan Cruz Allik, atzoko aurkezpenean.

MIKEL SAIZ